



bai

ziurtagiridunen
aldizkaria

20. zenbakia
2016ko azaroa

Eneko Knörr
*“Zailtasun guztien
gainetik ekintzaileak
behar dira Euskal
Herrian”*

Rober Gutiérrez
[zuzendaria]
@robergutierrez



“Euskaraz ekingo duten ekintzaileak behar ditugu”

Ekintzailetzaz eta finantzazio eredu berriez aritu gara aurtengo Enpresarean Azokan. Izen propioen zerrenda ez da edonolakoa izan: aditu eta ekintzaile sutsuak, Euskal Herriko enpresa askotako kideak, esperientzia handiko eta ibilbide luzeko pertsona sortzaile eta berritzaileak, arriskuak bere gain hartzeko prest daudenak; horiekin batera, finantzazio erakunde garrantzitsuetako ordezkariak izan ditugu Orona-Ideon. Antolakuntza xumea, baina asmo handikoa, iparra argi duena: ideiak partekatzeko foroa eskaintzea eta euskaraz lan egiten duten enpresen eta profesionalen arteko sarea ehuntzea. Baita ekintzaileen artekoa ahalbidetzea ere. Sinergiak bultzatuz eta elkarlana bideratuz.

Enpresetako eta administrazio gizon eta emakumeek bat egin dute Orona-Ideoko gune ikusgarrian. Etorkizuneko erronkei aurre egiteko ideia eraldatzaileak konpartitzeko espazioa eta jardunaldia izan da, eta ez dira hausnarketa sakonak falta izan. Ekintzaileek ekintzailetza sistematikoki sustatuko duen ingurune bat nahi dute Euskal Herrian, non administrazioetatik ekimen eta ideia berrien

garapena bultzatuko den, eskola eta unibertsitateetan ikuspegi zabaleko jarduerak sustatuko den eta entitate finantzarioek, aingeru inbertitzaileek eta abarrek proiektuak sortzeko baliabideak jarriko dituzten. Enpresarean egitasmoaren bitartez, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek euskararen presentzia ziurtatu nahi du sistema horretan. Hori ere bada, gure iritziz, etorkizuneko puzzlearen pieza garrantzitsua.

Eneko Knörr ekintzaileak dio Euskal Herriak ekintzaileak behar dituela, eta guk horri gehituko diogu, ahal dela, euskaraz ekin dezatela; ekimenak euskaraz sortu, abiatu eta gara ditzatela. Euskara era naturalean erabiliko duten aberastasun sustatzaileak behar ditugu, mundura begira eta beste hizkuntza batzuk ahoan izatera ohituta egongo direnak. Gure lurraldearen garapen osoa sustatzeko eta XXI. mendeko Euskal Herrian era naturalean txertatzeko gai izango direnak.

Aurtengo Enpresarean jardunalditik aterako ondorioak laster konpartituko ditugu zuekin guztiokin. Mereziko duelakoan baikaudede.

Iritzia 03

Euskaltasunaren finantzazioa
Imanol Esnaola

Enpresarean 04

Enpresa eta profesionalen sarea
Enpresarean Azoka

Ekintzailetza 06

Paul Liceaga - Adegi
Nagore Ardanza - Crecer+ Orkestra
Beñat Irasuegi - Talaios Kooperatiba
Mikel Orobengoa - BAC Mondragon

Eneko Knörr 08

“Gure herrian
anbizioa falta da”

Finantzazioa 11

Finantzazioa, ekintzailearen
iturri agortua

Xabier Egibar 12

Idea, borondatea eta
bideragarritasuna

Lazarraga Sariak 14

Lazarraga sarien
laugarren edizioa prest

Ziurtagiria 15

Bai Euskarari!

Argitaratzailea: Ziurtagiriaren Elkartea www.baieuskarari.eus · Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain t. 943592148
1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0559255041 · Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 902430026
Rogelia de Alvaro Elkartearen Etxea A.1.1. Panama, z/g - 01012, Gasteiz t. 945215196 ·
Martxelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa 31014 Iruñea t. 902430026

Zuzendaria: Rober Gutiérrez · Kudeaketa eta erredakzio-taldea: Ziurtagiriaren Elkartea eta Arteman Komunikazioa.
Diseinua eta maketazioa: dalvez · Argazkiak: Ziurtagiriaren Elkartea eta Arteman Komunikazioa.
Inprimatzailea: Leitxaran · Banaketa: Ziurtagiriaren Elkartea · Lege gordailua: SS-497-2010

 @baieuskarari

 baieuskarariziurtagiria

www.baieuskarari.eus



TALLERES
MITXELENA S.COOP.

Ezlaigo poligonoa, 21 · Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Imanol Esnaola
Gaindegiako
koordinatzailea

Euskaltasunaren finantzazioa

Ekonomia diruari errentagarritasun finantzarioa ateratzea baino gehiago da. Horren oinarritzkoa dirudien printzipio horrek ordea jarraitzaile gutxi du baliabide finantzarioak metatzen dituztenen artean. Izan ere, ekonomiaren finantzarizazioa bizi dugun garaiotan, badirudi hobe dela meta handiak osatu nahian dabiltzan funtsa eta baloreetan inbertitzea jarduera ekonomiko “lokaletan” inbertitzea baino, oinarritzko jarduerak finantzatzea baino hazkunde aukera handienekoekin saiatzea.

Euskal jarduera lokala diogunean gauza asko ari gara batera aipatzen. Labur beharrez, euskal geografiaren luze zabalean aktibitatea eragiteko konpromisoa izateaz gain, hurbi-leko ekonomiarekin lotutako jarduerak ditugula gogoan, industrialak bezala kulturalak, linguistikoak, komunikatiboak, hezkuntza mailakoak, agroalimentarioak... Euskal komunitatea geroratzeko zutabe nagusiaz.

Euskaraz edo “euskaltasunean” jarduteko xedea duen enpresa oro “txikira” jotzen duela dioen estigma bere gainetik kendu ezinik ibiliko da. Zer esanik ez, delako “euskal” organizazio hori euskal kultur sistemako parte izateko bada (irakaskuntza, hedabideak, kultur sorkuntza eta hedapena, diseinua...). Berdin piperrak ontziratzuz euskal merkatuan kokatu nahi badu. Aurreiritzi jakobino eta supremazista bat besterik ez bada ere, ongi errotuta dago ekonomia lokalarekiko gutxiespena eragile ekonomikoen artean. “Euskaltasunak” ez du dirurik ematen baliabide finantzario handiak kudeatzen dituztenentzat.

Hego Euskal Herrian Madrilgo gobernuak aurrezki kutxen pribatizazioa agindu zuenetik are gaitzago jarri da egoera, xede sozial eta konpromiso nazional oro desagertzen ari delako eta bertan erabakiguneak dituen finantzazio institutu publikorik ez dagoelako. Enpresa bat sortu eta finantzazio bila abiatzen den orok topo egiten du ICO delakoarekin hegoaldean (Instituto de Crédito Oficial). Baina ICO zerbait baldin bada, Madrilgo instituzio bat da, Madrilen erabakitzen diren irizpideak aplikatzen dituen Madrildik.

Elkargik eta Oinarrik bat egin dutenetik badirudi bertako finantzazio tresnak indartu direla, baina ez dezagun ahanzi, kapital arriskuko elkarte horiek bermea ematen dutela entitate finantzarioen aurrean. Entitate pribatuak direla, bere bazkideek (beste enpresek) sortuak eta bere erabakiguneetan bazkideen beharrei erantzutera jarriak daudela batez ere, eta bereziki, baliatutako dirua ahalik zein errentagarritasunik handiena eman dezaketenei begira dagoela. Beraz, hemen ere oztopoa bikoitza da.

Erakunde publikoek enpresak sortzeagatik, ideia eraginkorrak izateagatik edo bazkide-tzan langileen parte hartzea handitzeagatik laguntzak eta erraztasunak ematen dituzte. Bai, baina hori besterik ez dira, pizgarriak, ez finantzazioa.

Euskal ekonomia sustatzea errentagarritasun finantzarioa baino zerbait gehiago dela uste duen finantzazio sistema publiko edo soziala sortzea ezinbestekoa da. Behar hau ez da berria eta horren aldeko adierazpenak entzuten ari gara instituzioetatik. Ari da zerbait mugitzen. Sistema horrek, ordea, arreta berezia jarri behar luke euskal jarduera ekonomikoak sustatzen, maila lokala duten jarduerak, mozkin handiak ez, baina enplegua sortzen dutenak, euskal kultur sistemako jardueren ekonomia barne (ez espezializazio inteligen-teari eta eskalako ekonomiari lotutakoak bakarrik). Horrela eta horrela bakarrik hasiko gara ekonomia lokala, euskaltasunean hazi nahi duena ere bai, beste oinarri finantzario batean kokatzen. Gero geroak.

Enpresa eta profesionalen sarea, Enpresarean



Enpresareanen helburu nagusia alor **sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzea** izanik, lan munduko komunitatea handitu eta elkarlana areagotzeko baliabide, eremu zein ekintza ezberdinak eskaintzen ditu.

Negozio alorrean, harreman pro-

Euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen sarea da Enpresarean, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek sustaturiko proiektua.

fesionalek berebiziko garrantzia dute eta, hori dela eta, beharrezkoa da erlazio horiek errazteko eta garatzeko aukerak mahai gainean jartzea. Ideiak, proiektu jaio berriak edo jada garatuak dauden negozio ereduak partekatzeak ikuspegi berriak jaso eta bide berriak irekitzeko aukera ematen du. Hori dela eta, **euskaratik eta elkarlanean proiektuak sortu eta bultzatzeko sarea indartzeko lanean ari da Enpresarean.**

Elkarlanerako aukera zabala

Jaio eta sei urte geroago, ekimenak aurrerapauso nabariak eman ditu eta euskara eta elkarlana ardatz bezala hartzen dituen komunitatea geroz eta handiagoa da. Denbora honetan, hainbat ekintza eta jardunaldi martxan jarri ditu sarete hori erraztu eta baliabideak luzatzeko.

Horietako bat da **Enpresarean Azoka**, bi urtean behin antolatzen dena. 2012. urtean egin zen lehenengo edizioa eta bere xedea da elkarlana sustatzea, esperientziak trukatzeko eta euskararen erabilerak negozioen eremuan dituen onurak agerian uztea. Azoka proiektu berriak abiarazteko eta hornitzaile zein bezero berriak

topatzeko eremua da. Beste edizioetan bezala, aurtengoan ere, sektore guztietako enpresek solasaldi, hitzaldi eta bestelako ekintzetan parte hartuko dute eta, gainera, harreman profesional interesgarriak egiteko, hausnarketarako eta eztabaidatzeko aukera izango dute.

Enpresarean Foroa ere azpimarragarria da, profesionalen arteko elkarrekintzarako gunea. Aditu bati (tzu)en eskutik (gosari-)hitzaldi bat egiten da alor ezberdinetako gaiei buruz ikasi eta elkarlana sustatzeko. Honako gonbidatuak izan dira haien ezagutzak sarean partekatzen: Alex Gibelalde (Transformazio digitala), Joseba Barandiaran (Ekonomia eta finantzazioa), Itziar Galdos (Gasteizko Triatloiarren erronkak) eta David Sánchez Bote (Elkarlana eta nazioarteratzea).

Gainera, sareak plataforma digitala du, www.enpresarean.eus ataria, hain zuzen ere. Bertan, arlo sozioekonomikoari buruzko informazio interesgarria aurki daiteke eta enpresek zein profesionalek izena eman dezakete eta komunitatean parte hartu albisteak, ideiak, eskaerak, etab. partekatzeko ●

Herri hizkera kontrolatzen duzu?

Herrizki aplikazioarekin

Sartu eta jarri zure burua proban




Garapen



AKTING...

Bateldun



Tel: 944 600 000 - 944 600 000
www.arteiz.eus

hizkuntza
aholkularitza

itzulpen
zerbitzua



zerbitzua eta
lana erabiltzeko



www.arteiz.eus

Ekintzailletza eta finantzazioa hizpide, enpresa eta ekonomia arloko profesionalak **Enpresarean Azokan** elkartu dira

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek antolatutako Enpresarean Azokaren hirugarren edizioan ekintzailletasuna eta finantzazio aukera berriak izan ditugu eztabaidagai. Hitzordua azaroaren 3an egin da *Orona Ideoko Orona Galleryn* eta enpresa zein ekonomia alorreko zenbat aditu bertaratu dira: **Eneko Knörr, ADEGI, Laboral Kutxa, SPRI, Elkargi** eta **BAC Mondragoneko** ordezkariak, besteak beste.

Etorkizunera begira ekintzailletza eta finantzazio eredu berriei hitz egin zein ikuspegiak alderatzeko solasaldiak, hitzaldiak eta *networking* eremua egon dira azokan. Arlo sozioekonomikoko profesionalak duten ikuspegia azaldu dute eta haien ibilbidean oinarrituriko argudio zein adibideak eman dituzte.

Azokaren **helburua da elkar ezagutu, ikasi, ideiak partekatu eta elkarlanerako gune bilakatzea**. Gainera, aurtan inoiz baino sorpresa gehiagorekin abiatu da jardunaldia; izan ere, *arin-arin* saioko parte hartzaileei zuzenduriko 2.000 euroko sari bat eskaini da, **‘ekintzailletasuna eta lurraldearekiko konpromisoa’ hobekien uztartzen dituenak** bere ideia hurrengo bi hilabeteetan garatu dezan.

Saioaren helburua da enpresa eta profesionalak euren proiektu edo ideia hiru minututan aurkeztea eta, era berean, ekintzailletasuna eta lurraldearekiko ardura modu arin batean erakustea.

Goizetik arratsaldera, Enpresarean Azokan **ideiak, elkarlana, ezagutza eta euskara** bizi-bizirik.



enpresarean **bai** Euskarari Ziurtagiria **Lan eta bizi euskaraz**

EGITARAUA

Ekintzailletza eta finantzazio eredu berriak. Etorkizuneko erronkei aurre egiteko formula berriak.

8:30-9:00	Harrera eta dokumentazio-banaketa.
9:00-9:15	Aurkezpen instituzionala.
9:20-10:20	Solasaldia: EKINTZAILLETZA EREDEKUZ HAUSNARKETA 1.5
10:20-11:00	Solasaldia ekintzaileekin: 2.5
11:00-11:20	Nola sustatu ekintzailletza? Zer eskaini ekin nahi duen pertsona? 1.1
11:20-11:45	Kafea + Elkarlana + Fotokola + Musika.
11:45-12:45	FINANTZAZIOA. Nola lortu diruak dirua? 3.5
12:45-12:50	Arsedona. Elkar ezagutuz + Musika.
12:50-13:50	HITZALDIA Hizlaria: ENEKO KNÖRR . Zailtasun guztien gainetik, ekintzaileak behar dira Euskal Herrian
13:50-15:00	Elkarlanerako bazkaria
15:00-15:30	Ain-arin aurkezpenak. 3 minututan aurkeztu behar da proiektu edo egitekoak. Aurtan 'ekintzailletasuna eta lurraldearekiko konpromisoa' hobekien uztartzen dituenak 2.000 €ko sari bat jasoko du bere aurreko hurrengo bi hilabeteetan garatu ahal izateko.
15:40-16:30	Emakume ekintzaileak. Berroztasunik? 4.5
16:30-17:00	Ekintzailearen ezagueri nagusia, BAIKORTASUNA Markel Irizar (BIZIPOZ proiektua) 3.1
17:00	LABURPENA - AGURRA Rober Gutiérrez (Ziurtagiriaren Elkartea)

www.enpresarean.eus

SOLASALDIAK I HITZALDIAK

-Solasaldia:
EKINTZAILLETZA EREDEKUZ HAUSNARKETA
Dinamizatzailea: PILAR KALTZADA
Parte-hartzaileak:
• PAUL LUCGAGA, Adegi - Ekintzaileon Foroa.
• MIKEL OROBENGOA, BAC Mondragon (Business Acceleration Center)
• BENAT IPASUEGI, Taisko.
• NAGORE ARDANZA, Crocor + Orkestra

-Solasaldia ekintzaileekin:
Parte-hartzaileak:
• LEIRE UDABE, Lekari.
• LUIS URTEAGA, Erobien.
• MAIZEA PÉREZ, Leiret.
• MIREN MURASORRI, Erobien

-Hitzaldia:
Nola sustatu ekintzailletza? Zer eskaini ekin nahi duen pertsona?
• ANTON TOMASENA, Ekonomia sustapenerako zuzendaria, GFA - Ekonomia Sustapena, Lanari Ogaritua eta Lurralde Orokari departamentua

-Solasaldia:
FINANTZAZIOA. Nola lortu diruak dirua?
Dinamizatzailea: DAVID BANCHEZ BOTE, MK RESEARCH
Parte-hartzaileak:
• XABIER EGIBAR, Laboral Kutxa.
• JUAN GABRIEL, Eneki.
• JORGE BELAUSTEGUI, Elkargi.
• ALEXANDER ARRIOLA, Spri

-Hitzaldia:
Zailtasun guztien gainetik, ekintzaileak behar dira Euskal Herrian
• ENEKO KNÖRR.

-Solasaldia:
Emakume ekintzaileak. Berroztasunik?
• MIREN LAZORRA, Ari for Life! Emakumeekin
• SONIA URTUBAI, Abantali

-Hitzaldia:
Ekintzailearen ezagueri nagusia, BAIKORTASUNA
• MARKEL IRIZAR, BIZIPOZ proiektua

Eman izena.
www.enpresarean.eus

Paul Liceaga ADEGI - Zuzendaria

“Gazteen lehenengo aukera euren proiektua sortzea izan beharko litzateke”



Herrialde egokia da Euskal Herria ekintzaileentzat?

Indar eztaba daezinak dituen lurraldea da: tradizio industrialak, lehiakorrek diren enpresak, zentro zientifikoen / teknologikoen sare indartsua eta enpresa berriak sortzea bideratua dagoen egitura publiko zabala dugu. Baina ahuleziak ere badaude: mundu mailan eragitea helburu duten ekintzaileek beren gain hartutako enpresa-proiektuak sortzeko bokazio txikia dago (GEM txostenak baieztatuta).

Zein dira ekintzailletza sustatzeko eredu egokienak?

Zerbait berria sortzeko eta gizartean eragin positiboa eragiteko prest dagoen edozein

eredu: berrikuntza arloan aukerak ikusteko eta gure enpresa-egitura eta balio-katea indartzeko gai diren, munduan hobeto posizionatzen gaituzten eta, batez ere, hemen bizi garenon bizitza hobetu eta enpleguak sortzen dituzten ereduak.

Zer da ekintzaile izatea? Zein da haien DNA?

Aurrera egin eta pertsonen bizitza hobetzeko beren kabuz zerbait sortzeko ametsa eta erabakitasuna duten pertsonak dira. Oro har, ezaugarri hauek dituzte: jakin-nahia, prestutasuna, sormena, konformismo eza eta moldagarritasuna zailtasunen aurrean.

Zein dira gure herriko ekintzaileen etorkizuneko erronkak?

“Ekintzailletzaren ekosistema” izeneko aitorpena lortzeko beharrezko merituek egitea; horren arabera, gazteen lehenengo aukera euren enpresa-proiektua sortzea izan beharko litzateke. Merkatura iristeko aukerak garatu eta inkubatu ahal izateko zientzia- eta ikerketa-zentroak izatea, lankidetzak eta sinergiak ezartzeko lehenetik dauden enpresek inotzura bilatzea eta azpiegitura eta gune onak izatea. Azkenik, funtsezkoak dira kapitala eta mentoreen sarea. Hori ondo eginez gero, nazioarteko talentua lortzeko lurralde erakargarria izango ginateke. Horixe da gakoa, hain zuzen ere: herrialde eta hiri aurreratu guztiak lehian ari diren tokian posizionamendua lortzea.



Nagore Ardanza CRECER+ ORKESTRA - Arduraduna

“Ez da erraza; ilusio, gogo eta konpromiso handia behar dira”

Herrialde egokia da Euskal Herria ekintzaileentzat?

Estatu mailan bai; agian Madril edo Bartzelonan bestelako aukerak egon daitezke, baina Euskal Herrian, arlo publikoan, ekintzaileek beraien ideiak garatzeko aukerak dituzte: adibidez, garapen agentziak, BIC ezberdinak, *Speed Capital*-ak, SPRI... Hala ere, arlo pribatuan eta finantzazioaren alorrean, banketxe batzuk bakarrik dute ekintzailetasunarekiko nola-baiteko sentsibiltatea garatuta; horregatik, lana dago egiteko.

Zeintzuk dira ekintzailletza sustatzeko eredu egokienak?

Ez dago egokiagoa edo desagokiagoa den eredurik, ekintzailea bera eroso sentitzen den ereduak da hoberena. Nik bi eredu nagusi ikusten ditut: batetik, ekintzaile batek edo talde batek proiektu bat martxan ipini eta hazkunde esponentziala planteatzen duena eta, bigarrenik, hazkunde linealagoan kokatzen dena. Ondoren, proiektuak arlo ezberdinetan kokatu daitezke, baina hori ekintzailearen gogo eta gaitasunaren arabera da. Ez dut uste eredu egoki bakar bat dagoenik.

Zer da ekintzaile izatea? zein da hauen DNA?

Ekintzaile guztiekiko miresmena sentitzen dut. Ekintzaile izatea erantzunkizuna norberarengan hartzean datza, eta hau kudeatzea ez da erraza, ilusio, gogo eta konpromiso handia behar dira.

Zeintzuk dira gure herriko ekintzaileen etorkizuneko erronkak?

Erronka nagusiak bezeroa eta finantzazioa dira; beharrezkoa da proiektuaren hasieratik kontsumitzailea buruan izatea eta, horrekin batera, baliabide ekonomikoak ongi kudeatzea.

Ekintzailletza ekosistemari dagokionez, ekimen ezberdinen arteko koordinazioaren beharra eta enpresa pribatuaren sentsibilizazio falta nabarmenduko nituzke.

Azkenik, agian, etorkizunerako, sektORIZAZIOAN jarriko nuke arreta. Hau da, Euskal Herria erabat industrialak denez, horrekin jarraitu eta ekintzaile industrialak sustatzen dituzten ekimenak bultzatu beharko genituzke. Bartzelona eta Madril gehien ikusten diren proiektuak teknologikoak badira, zergatik ez sustatu proiektu industrialak hemen?

Beñat Irasuegi TALAIOS KOOPERATIBA - Arduraduna

“Hegemonikoa dena baztertu eta ekintzailletasun sozialaren alde egin behar da”

Herrialde egokia da Euskal Herria ekin- tzaileentzat?

Momentu honetan, Euskal Herria ez da leku egokia, krisi sakonean gaudelako eta jendea ekintzailletzara modu desesperatuan gerturatu delako. Hala ere, kultura alde-
tik, Euskal Herria bada egokia, lan kolekti-
boaren aldeko jarrera daukagulako.

Zeintzuk dira ekintzailletza sustatzeko eredu egokienak?

Eredu egoki batek kooperatibismoari lo-
tuta egon eta hegemonikoa den ekin-
tzailetasunari kontrajarri beharko lioke. Bi-

ziraupeneko eredu indibidualari aurre egin
eta kultura kolektiboa berreskuratu behar-
ko genuke, ekintzailletza sozialaren alde
egiteko.

Zer da ekintzaile izatea? zein da hauen DNA?

Egun, ekintzailearen irudia pertsona
arrakastatsua eta indibidualarena da,
baina hori proiektuen ehuneko txiki bat
bestetik ez da. Nik ekintzaile sozialaren
ezaugarriak nabarmendu nahiko nituzke:
aktiboa, burujabea eta autonomia, gogo-
tsua eta harremanetarako gaitasunarekin.



Zeintzuk dira gure herriko ekintzaileen etorkizuneko erronkak?

Batetik, hegemonikoa dena baztertea eta
ekintzailletasun sozialaren aldeko apustu
egitea, aberastasun ekonomiko orekatua
sortu zein gizarteari ekarpen bat egingo
dionena; bestetik, ekintzaile kolektibo izan
nahi dutenei laguntza publiko gehiago es-
kaintzea.



Mikel Orobengoa MONDRAGONeko BAC - Sustatzailea

*“Krisialdiak apaldu egin du
ekintzaile izateko grina”*

Herrialde egokia da Euskal Herria ekin- tzaileentzat?

Ikuspegi ezkorra daukat. Krisialdiak apaldu
egin du ekintzaile izateko grina. Euskadin
azken bost urteotan Ekintzailletzaren Tasa
Aktiboa 4,5 puntura jaitsi da eta barne
ekintzailletasunak ere nabarmen egin du
behera. Krisiaren ondorioz euskal gizartea
oso kontserbadorea bilakatu da eta ekin-
tzailetasuna bere unerik txarrean dago.

Ikuspegia falta da?

Ez dago ekintzailletasuna sustatzeko es-
trategia orokorrik. Eskolatik hasi eta uni-
bertsitatera arte ekintzailletasuna sustatu
beharko litzateke eta ez da egiten. Ez
dago *venture-capital* (arisku-kapitala)
enpresa indartsurik. Kutxek eta bankak ez
daukate arrisku kapitala sustatzeko joe-

rarik. Ikuspegi orokorra falta da; hezkun-
tzan, administrazioan, enpresetan eta oro-
har gizartean eragiteko.

Zeintzuk dira ekintzailletza sustatzeko eredu egokienak?

Gaur egun modan dago Negozio Azelera-
tzaileen eredu Estatu Batuetan: *Y Com-
binator*, *500 Startups* edo *Techstart* dira
eredu ezagunenak. Programa bat da eta
urtean zehar bi hautaketa egiten dituzte,
3.000 proiektutik 54 aukeratzen dituzte
eta metodo berriak erabiliaz; *Lean Startup*
(ekintzailletasun arina) lehiaketa bat egiten
da eta promotore pribatuen bitartez finan-
tazioa bideratzeko aukera egoten da. Bes-
te eredu bat inkubagailuena da.

Eta unibertsitatean?

Stanford University da eredurik garbiena.
Gure unibertsitate eta zentro teknologi-
koetan ere garatzen da ekintzailletza, baina
bereziki enpresetan sustatu behar da. Gaur

egun, European enpresa berri bat aurrera
eramateko ez da soilik apustu teknologia
behar, trebetasun komertziala ere oso ga-
rrantzitsua da.

Zer da ekintzaile izatea?

Ekintzaileak berritzailea, proaktiboa -proiek-
tua ideiatik abian jartzeko gaitasuna- eta
ariskuari tolerantzia -abian jarritako proiek-
tuak porrot egin dezakeelako- izan beharra
dauka.

Zeintzuk dira gure herriko gazte ekin- tzaileen etorkizuneko erronkak?

Beti lotu izan da ekintzailletza eta gazteta-
suna, baina mito bat da. Gaur egun ekin-
tzaile izateko eskarmentua behar da eta
eskarmentu hori lan esperientziak ematen
du. Adinari dagokionez, 30 urtetik gora eta
gutxienez 10 urteko esperientzia behar
izaten da proiektuak abiarazteko. Erronkari
dagokionez, gaur egun nagusia finantza-
zioa da. Ez baitago sistemarik.

Eneko Knörr Gasteiz (1975)

“Gure herrian anbizioa falta da”

Bestelako definizioen gainera, ekintzailetzat du bere burua Eneko Knörr gasteiztarak. Azken urteotan zenbait alditan zeharkatu du Atlantikoa, Euskal Herriko Citytik Los Angelesera, Palo Altora. Silicon Valleyn bulegoa izan duen euskaldun bakarra bilakatu.

41 urteko ‘gaztea’ bada ere, hiru proiektu sustatu ditu bere ibilbide profesionalean; Hostalia (Telefonica enpresari saldutakoa milioi askoko kontratuaren ondoren), Ideateca (inbertsore gisa aritzeko proiektua) eta Ludei (bideojokoen aplikazioen sektorean erreferente bilakatu nahi duena eta egungo bere proiektu nagusia). Era berean, Jon Uriarte eta Ander Michelena euskaldunen **Ticketbis** proiektuan inbertsore ere izan zen. Uriartek eta Mitxelenak eBay-ren **Stubhub** plataformari saldu zioten enpresa 165 milioi dolarren truke.

Bat zatoz Euskal Herrian ekintzailetzak bere une historikorik txarre-na igarotzen ari dela esaten dutenekin?

Ez nago batere ados. Nik uste dut ekintzaileentzat oso une ona dela.

Ekintzaileok beti nahi dugu administrazio publikoaren laguntza handiagoa, diru poltsa edo fondo gehiago... eta horrela izango da beti, baina uste dut orokorrean une ona dela. Estatuko inbertsoreek diote diru gehiegi dagoela *startup*-entzat eta datu objektiboek ere hala diote.

Zelakoak dira Euskal Herrian sortzen ari diren proiektuak?

Euskal Herrian une honetan industria arloko *startup* asko daude, Industria 4.0 eremuaren baitan sortzen ari direnak. Azpiegitura minimo bat muntatzeko inbertsio txiki batekin nahikoa da: zerbitzariak askoz merkeagoak dira orain eta software bat ia doakoa. Horrexegatik diot, oso une ona bizi dutela ekintzaileek.

Zuk, ekintzaile gisa, Silicon Valley ezagutzen duzu. Zuk esana da oso ekosistema konplexu eta konpetiti-

boa dela. Handik bizirik irteten duenak arrakasta ziurtatuta dauka?

Argi dagoena da Silicon Valleyn arrakasta lortzen baduzu zure enpresa arrakastatsua izango dela, alegia mundura jauzia egingo duzula. Edozein modutan ere, merkatu hori oso konplexua da. Silicon Valley mentalitate oso zabaleko eremua bada ere, ekosistema itxia da, eta kosta egiten da horretaz ere konturatzera. Esaterako, *startup* batek baldin baditu *Stanford University*ko bi ikasle, eta Apple eta Google enpresetako langile ohiak baldin badira, eta gainera Palo Altoko Institutuko beste kide bat badago taldean, errazago izango dute finantzazioa lortzeko. Kanpotik doanak zailtasun handiagoak izango ditu. Ekosistema horretan sartzea ez da erraza, baina maila gorenera iritsiz gero, aukera handiagoa izango duzu.

Beti esan da sistema meritokrati-



leitzaran

Leitzaran Grafika, S.L.
 Martin Ugalde Kultur Parkea
 20140 Andoain (Gipuzkoa)
 tel: 943 303510 - fax: 943 593067




- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakiak



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala



**koa gailentzen dela Los Angelesen.
Horrela al da?**

Bai, merituek garrantzia badute, baina hasieran mugak gainditu behar izaten dituzu euren sarera sartu ahal izateko.

**Zein da AEBtik ekarri duzun ikas-
gairik garrantzitsuen?**

Anbizioa da niretzat inportanteena. Ameriketako Estatu Batuetako ekintzaileak enpresa globala sortu nahi du, milaka langilekoa. Sekulako anbizioa du. Gure herrian anbizioa falta da. Ekintzaile eta inbertsoreek ez dute horrenbeste arriskatzten.

**Hostalia eta Ideateca proiektuak
martxan jarri ondoren, eta lehena
Telefonicari saldu ondoren, orain
Ludei da zure proiektu handia.
Erreferente bilakatu nahi duzu bi-
deojokoen aplikazioetan, ezta?**

Horretan ari gara. Izaeraz oso baiko-rra naiz eta nik beste plan bat nuen buruan. Pentsatzen nuen Silicon Valleyra joango nintzela eta arrakasta

izango genuela, baina uste baino zailagoa izaten ari da eta, oraindik orain, merkatua ez dugu seduzitu. Momentu oso onak izan ditugu, Txinako zenbait inbertsorerekin esperientzia oso ona izan dugu baina proiektuak bultzada handiagoa behar du.

Ekintzaileen ezaugarriak

**Zure esperientzia pertsonal arrakas-
tatsutik abiatuta, zeintzuk dira zu-
retzat ekintzaile baten ezaugarriak?**

Ekintzaileak ezinbestean baikorra izan behar du. Ezkorrek ez dute inoiz ezer sortuko. Era berean, egoera txarre-tan ere lasaitasuna mantentzen jakin behar du. Guk bizi izan ditugu bilera oso itxaropentsuak, Amazonekin diru mordoa jokoan zela, eta beste une batzuetan ez dugu soldatak ordaintzeko dirurik izan.

Zuk zeuk denetik izan duzu, ezta?

Bai, bai... Nik, ekintzaile gisa, une oso onak eta oso txarrak igaro ditut baina

**“Une onak eta oso txarrak
bizi izan ditugu, soldatak
ordaintzeko arazoak izan
arte”.**

zorionez inoiz ez diot lo ondo egitea-ri utzi, eta uste dut oso garrantzitsua dela deskantsatzea eta ondo lo egitea.

**Inbertsore lanetan ere aritu zara.
Ekintzaileek askotan finantzazio
arazoak izaten dituzte eta ideiak
proiektu bilakatzeko aukerarik ez
dute izaten. Badago inbertsorarik
edo *Business Angels*-ik EHn?**

Ikertetek diote hamar ideietatik bik egi-ten dutela aurrera. Alegia, hamarretik bik soilik lortzen dutela bere proiektua finantzatzea. Euskal Herrian, tamalez, ez dago inbertsorarik eta administrazio publikoarengan jartzen ditugu itxaro-penak. Enpresen baitan ematen diren ekintzailetasun kasuek, berriz, finan-tzazioa lortzeko aukera gehiago izaten dituzte.

Une honetan Estatuan Euskal Herrian baino fondo gehiago existitzen dira?

Euskal Herrian, gaur egun, ekintzaile batek babesa behar du administrazio publikotik eta tamalez ez du lortzen. Hastapenak oso zailak dira eta, kalkulatu dezakegu ekintzaile batek 5.000 edo 50.000 euro inguru behar izaten dituela proiektu bat martxan jartzeko. Tamalez, oso gutxi dira teknologian inbertitzen duten *venture-capital* (arrisku-kapital kudeatzaileak) pribatuak une honetan Euskal Herrian. Estatuan gehiago daude.

Hortaz, Euskal Herrian ekintzailetza sustatzeko ekosistema berezia sustatu beharra dago.

Ekosistema behar dugu; hezkuntzaren alde egingo duena, dirua lortzeko gai izango dena eta talentua sustatuko duena. Hezkuntza eta talentua sustatu ditzakezu epe luzera baina inbertitu beharra dago arlo horretan.

Zein da ekintzaile izateko adinik egokiena?

Irakurri berri dut ekintzailearen adin egokiena 35 urte direla. Edozelan ere, gaztea zarenean ez duzu beste inolako loturarik eta ekintzaile izateko pausoa ematea samurragoa da.

Etorkizunaz hitz egin dezagun. Zein proiektu duzu buruan orain?

Ludei da nire proiektua orain, baina etengabe ari naiz mugitzen eta ziu-rrerik beste egitasmo, proiektu edo enpresaren bat sortuko dut. Era be-



“Gaztea zarenean ekintzaile izateko pausoa ematea samurragoa da”

rean, asko gustatzen zait beste batzuei laguntzea, mentore lanetan aritzea.

Ekintzailetzan hasten ari direnei gomendiorik emango al zenieke? “Eneko Knörr-en liburu beltzaren” lehenengo lerroak idatziko dizkiguzu?

Edozein Herrik, eta bereziki gure Euskal Herriak, ekintzaileak behar ditu. Gure herrian, tamalez, enpresario izateak ez du prestigiorik, eta ez dago ondo ikusita, baina uste dut ekintzaileak behar dituela gure ekonomiak. Edozein modutan ere, eta aholku gisa, esango nieke ekintzaileei gauzak oso zailak direla eta prest egon behar dutela porroterako. Oporrik ez duzu izango, bikotekideak agur esango dizu... baina konfiantza izan zure buruarengan eta anbizioz jokatu.

Euskaraz eta euskaratik izan daiteke ekintzaile?

Enpresa globala izan nahi baduzu, ingeleza izan beharko da zure hizkuntza. Tamalez, enpresetan euskal giroa edukitzea ez da samurra izaten baina ahalegindu behar gara egunerokotasunean euskara sustatzen, naturaltasunez. Gure proiektuetan euskarak presentzia izan behar du, beste hizkuntzek duten presentzia bera, nahiz eta proiektu globalak izan ●

KULTURA
EUSKARA
SUSTATZEN

elkar



Finantzazioa, ekintzailearen iturri agortua

Ekintzaileak bere proiektuaren hastapenetan aurki ditzakeen finantzazio iturriak ez dira, tamalez, oso ugariak izaten. Proiektu txikien kasuan familia eta lagunak izaten dira finantzazioaren zutabe nagusiak. Bestalde, proiektu teknologiko sendoak abiarazteko ezinbestekoa izaten da beste enpresa pribatu batzuetatik bideratu daitekeen kapitala.

Gaur egun ekintzaile batek ez du diru asko behar izaten enpresa txiki bat sortzeko (zerbitzuen sektorerako bideratutako enpresa). 20-30 mila euroekin pertsona batek sor dezake bere proiektua (proiektu txikiez ari gara). Kasu horretan finantzazio bide nagusia *“Familia eta lagunak”* eredu oinarrituta egoten da, alegia, familia eta lagunak laguntza. Apustu ekonomikoa bankaren kredituarekin osatzen da, nahiz eta bankak garantia ugari eskatzen dizkion hasiberriari.

Proiektu teknologikoen kasuan, ekintzailetasunaren estadio ebolutiboa aztertuz gero, zutik jarri beharreko fasean, alegia esplorazio fasean edo ideiak garatzeko fasean, lan-taldea bi-hiru pertsonak osatzen dute eta 200 mila euro (*Mondragon Korporazioaren baitan eginiko ikerketa baten oinarritutako datua) behar izaten dituzte proiektua abiarazteko. Enpresa sendotzeko bigarren fasean, 2-10 pertsonarekin, milioi bat behar izaten da eta hirugarren fasean beste horrenbesteko diru-poltsa behar izaten da proiektua merkaturatzeko. Hirugarren fase horretan lan-taldea bikoiztu daiteke.

Aingeru inbertitzaileak, arrisku-kapitala, finantzaketa kolektiboa...

Inbertsoreak zutik jarri beharreko fasean behar izaten dira. Mondragon Fundazioak, esaterako, proiektuak garatzeko finantzazioa bilatzen du eta figura hori bete dezake. Edozelan ere, Euskal Herrian ez dago inbertsore-saririk.

Bigarren fase batean, proiektuak aurrera egiten badu, arrisku-kapitaleko enpresak sartzen dira finantzazioan. Ezaugarri horietako lau enpresa daude EAEn eta ez dira oso indartsuak. Estatuan, esaterako, arrisku kapitalak beste izen bat hartu du aspaldion: inbertsio kapitala.

Hirugarren fasean, ekintzaileak bere proiektua gauzatzeko eta merkaturatzeko enpresa edo korporazio zein talde baten laguntza behar izaten du. Bestela, oso zaila da diru hori guztia lortzea. Finantzazioa, beraz, arazo larria da ekintzaileentzat.

Beste lurralde batzuetan, legeak, kutxa zein banketxeek euren baliabideen %10 erabili behar dute arrisku-kapital gisa. Estatu Batuetan badaude fondo batzuk hasten ari diren enpresei laguntzeko, eta abantaila fiskalak eskaintzen dizkiete fondo horiei. Euskal Herrian, berriz, ez dago tresna berezirik ekintzailetza sustatzeko.

Banka etikoa (**Fiare**) eta finantzaketa kolektiboko ereduak ere existitzen dira baina oso mugatuak dira gurean. Finantzaketa kolektiboaren kasuan, hiru-lau plataforma existitzen dira baina ahalmen ekonomiko oso mugatua dute. Gainera, Espainiako Gobernuak orain pare bat urte mugatu zuen sistema honen bitartez bideratu daitekeen diru kopurua.

Finantzazio iturrien errebisioari amaiera emateko ezin ditugu ahaztu abantaila fiskalak. Gurean, ordea, ez dira finantzazio erreminta gisa ulertzen. Ekintzaileek proiektua abiarazteko (hastapeneko fasean) behar dute dirua. Abian jarri ondorengo abantailak ondo egon daitezke, baina hasiera da beti zailena.



www.enpresarean.eus



/enpresarean



@enpresarean



**Enpresa eta profesional sarea,
euskaraz**

- Enpresa munduko albistea
- Ekintzaileentzako komunitatea
- Azokari buruzko informazioa



Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizia euskaraz

Xabier Egibar

Laboral Kutxako Negozio
Garapen Sailaren zuzendaria

Idea, borondatea eta bideragarritasuna



Xabier Egibar Laboral Kutxako Negozio Garapen Sailaren zuzendaria, Gaztenpresako burua eta aholkularia ere bada. Eskarmentu handia du negozio ereduen bideratze zein finantzaketa ereduetan eta aukera ezberdinak eskaini, hobetu eta ekintzaileak orientatzeko lan egiten du.

Negozio bat martxan jartzerako orduan, finantzazioa ezinbestekoa da eta, askotan, proiektu bat bertan behera gelditzeko arrazoi nagusia. Nola egin beharko lioke aurre ekintzaile batek diru-iturri behar horri?

Lehenik eta behin, finantzazio beharra oso ondo planifikatu behar da; horretarako, negozioaren diru-sarreraren eta inbertsio zein gastuen proiektzioa egin behar da eta, batez ere, lehenengo urtearena kontu handiz zehaztu, bidean likidezia arazorik ez topatzeko. Orokorrean, baiorregiak gara gure kalkuluak ateratzekoan; senarekin jokatu behar dugu eta adituen aholkuak jarraitzea komenigarria da finantzaketa aukera egokiena aukeratzeko orduan.

Batzuetan, ekintzaileak auto-finantzaketaren bidea hartu dezake, baina, gehienetan, kanpoko finantzaketa ezinbestekoa da. Erronka horri aurre egiteko, hau da, bideragarria den proiektu bat finantzaketarik gabe geratu ez dadin,

Laboral Kutxan hainbat instrumentu, formula eta aliantza bideratu ditugu. Horren adibide gisa dira Gaztenpresa Fundazioa, OINARRI eta Europako Inbertsio Fondoarekin sinatutako hitzarmenak edota OINARRI eta Laboral Kutxaren arteko hitzarmena.

Jakin dugu aipatutako Gaztenpresa izeneko proiektuaren lehendakaria eta mentoring-a zarela. Zer da eta zer eskaintzen du?

Gaztenpresa Fundazioak negozio ideia bat duen edonori laguntza eskainiko dio, fase ezberdinetan: hasieran, ideia garatzen eta negozio plana lantzen eta, ondoren, izapideak egin eta finantzaketa aukera egokiena bilatzen. Noski, behin negozio bat martxan jarri dela, Gaztenpresako tutoreek ekintzailearen ondoan jarraituko dute, negozioaren garapenean eta sendotzean beharrezko laguntza eta aholkularitza ematen. Horretarako, balio handiko eskarmentua duen aholkulari sare bat jarri

dugu abian, gure ezagutza ekintzaileei helarazteko eta bidelagun izateko asmoarekin.

Fundazioaren erantzukizuna eta arduraren nabarmendu nahiko nituzke. Izan ere, ideia batek etorkizun ona daukala egiaztatzeke, bideragarritasun plan bat ekoiztea ezinbestekoa da eta horri ekiten lagunduko dio ekintzaileari. Azterketaren erantzuna "baiezkoa" izan daiteke, baina baita "ezezkoa" ere. Arduraz jokatu behar dugu eta badakigu

Oso pozik gaude aurrera emandako urratsarekin, erritmo biziz aurrera goaz: abuztu bukaerarako 1.732 mailegu bideratu genituen, 26 milioi euro baino gehiago.



ezetz esaten. Horrela, Gaztenpresaren laguntza jasotako negozioen bizirau-pena GEM ikerketak aipaturikoa baino hiru aldiz hobe da.

2015eko memorian jasotako emaitzekin oso pozik ikusi zaitugu. 4.120 enpresa berri, 7.330 enplegu.. Helburuak bete dira? Erronka berriak?

Enpleguaren sorkuntzan liderrak izaten jarraitu nahi dugu. 2016ko datuak 2015ekoak baino hobeak izaten ari badira ere, ez gara konformatzen.

Gure helburua da enplegu berria sortzea eta, gainera, etorkizunerako formula berriak aztertzen ari gara. Era berean, Internet eta teknologiaren aukerez baliatuz, ekintzaileengana hurbiltzeko prozesuak murrizten eta errazten dihardugu.

Gaztenpresa albo batera utzita, OINARRI-Laboral Kutxa Express deituriko finantzazio eredu berri bat martxan jarri duzuela aipatu duzu.

Zertan datza sistema hau?

OINARRI-Laboral Kutxa Express ekintzaileei eta jadanik abiaduran dauden enpresei zuzenduta dago, maileguak lortzen errazten duelarik. Finantzaketa Oinarri Gizarte ekonomiako enpresetan eta autonomoetan espezializatutako Elkarrekiko Berme Elkartea (EBE) da. Hau da, Elkartek berak bere bazkideen maileguak bermatzen ditu, finantzetaren lorpena asko erraztuz. Izan ere, maileguak kredituko entitateetan kudeatzen direnez, arazorik handiena eskaeraren prozesuaren luzapena izan ohi da, mailegu operazioan partaideak gehiago direlarik.

Business Angels esanez gero, zer datorkizu burura? Bada finantzazioa lortzeko beste biderik?

Gaur egun, teknologia berrietan oinarritutako negozioak bultzatzerakoan ezinbestekoak dira. Ezin dugu zerutik etorritako aingeruak direla esan, ezta deabruak direnik ere; dirua irabazteko daude eta baldintza gogorak eskatuko dituzte, baina balio handia izan dezakete.

Gure kasuan, zenbait *start-up* finantza-tu dugu, baina era mistoan: hasierako finantzaketa eskaini dugu, baina, ondoren, inbertsore kapitalistak sartu dira.

Bukatzen joateko, azpimarragarria da orain dela ia urtebete Laboral Kutxak Europako Inbertsio Fondearekin mikrokredituetarako berme linearik garrantzitsuena sinatu zuela...erronka handia, ezta?

Egin dugun apustua handia da eta, era berean, erantzukizuna ere. Enplegua

Gaztenpresako tutoreek ekintzailearen ondoan jarraituko dute, negozioaren garapenean eta sendotzean beharrezko laguntza eta aholkularitza ematen.

sortzeko edo sendotzeko mikrokreditu lerrorik handiena baita Europa mailan. Oso pozik gaude aurrera emandako urratsarekin, erritmo biziz aurrera goaz: abuztu bukaerarako 1.732 mailegu bideratu genituen, 26 milioi euro baino gehiago.

Krisialdiak ondorio nabarmenak utzi ditu arlo honetan ere. Gizartea, oro har, entitate bankarioak eta kuxak zein ekintzaileak proiektuak sortzeko orduan kontserbadoreagoak bilakatu gara?

Nire ustez, ikuspuntu zabala behar da: krisialdietan aukerak sor daitezke eta epealdi emankorretan, ordea, zula daitezkeen puxikak.

Guk ez dugu ekintzailetzaren jaitsiera sumatu krisialdi garaian. Gizakiak itxaropena ikusten ohi du etorkizunean. Hala ere, krisialdiarekin batera "behartutako" ekintzaileak sortu dira, langabezian erorita ekintzaile bidea hartu dutenak, hain zuzen ere. Gizon-emakume guztiek ez dute bere negozio propioa sortzeko bokazioa eta egoera hori oso arriskutsua izan daiteke, norberaren negozioa abian jartzeko borondatea eta adimena beharrezkoak baitira ●

LANsarean
bilalan

www.lansarean.eus



Enpresa eta profesional euskaldunak
harremanetan jartzeko webgunea

- Lan bila zabilaz?
- Lana eskaintzen duzu?



Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

Lazarraga sarien laugarren edizioa prest

Lazarraga Sarien laugarren edizioaren ekitaldia azaroaren 24an egingo da Gasteizen. Aurten ere Araban, arlo sozioekonomikoan, euskara txertatzen eta hedatzen ari diren enpresek eta pertsonak aitortza jasoko dute.

Urriaren lehenengo astean aurkeztu zuten Igone Martinez de Lunak, Arabako Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak, eta Rober Gutiérrezrek, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendariak Lazarraga sarien laugarren edizioa. Arabako esparru sozioekonomikoan euskara txertatzen eta hedatzen egindako lana saritzeko ekitaldia azaroaren 24ean izango da eta hautagaitzak aurkezteko epea urriaren hirugarren astera arte luzatu zen.

Lazarraga Sariak bi urtez behin banatzen dira, arlo sozioekonomikoan euskararen aldeko lanaren aitortza moduan. Aurtengo laugarren edizioa "Lanabes, Araban Euskara Lanean" egitasmoaren barruan kokatuko da. Lanabes egitasmoko talde eragilean, Arabako Foru Aldundia, SEA Arabako

Enpresariak, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbara, Arabako Merkataritza Federazioa, Laneki, Electra Vitoria eta Oreka It enpresak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea ari dira elkarlanean Araban euskararen presentzia sustatzeko eta handitzeko helburuarekin.

Euskara sustatzeagatik egindako ahalegina onartzea eta goraipatzea xede nagusia izanik, Arabako Lurralde Historikoko bost entitate edo pertsona fisiko sarituko dituzte euskararen alde aurrera eramandako ekimenengatik. Lazarraga aitzindaria izan zen euskaraz idatzi zuelako; haren izena hartu duten Lazarraga Sariak ere aitzindariak dira eta sarituko diren enpresak ere aitzindariak izango dira euskararen normalizaziorako bidea urratzen.

Bost sari

Bost sari banatuko dira, entitateentzat eta pertsona fisikoentzat eta honakoak izango dira epaimahaiak kontutan hartuko dituen irizpideak: zerbitzua euskaraz eman eta lan egiteko hartu diren neurriak; euskaraz lan egiteko baliabideak; kontratazioak; barruko dokumentazioa; hizkuntza paisaia; kanpoko komunikazioa; produktuaren kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako elementuak; euskaraz egindako prestakuntza; euskaraz prestakuntza lanean; eta euskaraz esparru sozioekonomikoan sustatzearekin lotutako beste edozein neurri.

Saridunei Lazarragaren eskuizkribuan oinarrituriko litografia eta eskuizkribua bera banatuko zaizkie ●



Aurreko edizioetako saridunak:

2014:

Besa upategia, Electra Vitoria, Oreka IT, Agirre Lekue botika eta Aner Garmendia

2012:

Abel Enbeita, Cuadrabus, Gometegui, Assa Ikastola eta Villa Lucía

2010:

Kepa Mendia, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, JEZ Sistemas Ferroviarios, Skunk Funk eta Launa Upategia



Lazarraga sariak 2016.
Aurkezpen bideoa

Hizkuntzak bereizten gaituelako... Bai euskarari!

Egun 1.280 enpresa, saltoki eta entitatek lortu eta erabiltzen dute Bai Euskarari Ziurtagiria. Geroz eta handiagoa da euskararen erabileraren onuretan sinesten eta emaitza eraginkorrak ikusten dituen komunitatea.

Bai Euskarari Ziurtagiriak euskararen ezagutza eta presentzia areagotzeko neurriak garatzen ari direla egiaztatu eta enpresa, saltoki eta era guztietako entitateen hizkuntza egoera zein den ziurtatzen du. Entitate guztien ahalegina eta konpromisoa aitortzea du helburu eta, horretarako, jende aurrean erakusteko bereizgarria ematen die.

Zergatik lortu ziurtagiria?

1. Euskal Herriko alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko tresna baliagarria da.
2. Bezeroei begira, entitateak bereiztea eta zerbitzuak eta produktuak bere hizkuntzan jasotzea erakargarriagoa da.
3. Lehiakideengandik nabarmentzea eta merkatu kuota irabaztea.
4. Ziurtagiriak euskararekiko konpromisoa adierazten du, taldearen kohesioa eta motibazioa.
5. Urratsak egiten ari diren Euskal Herri osoko entitateak identifikatzea eta saritzea.

Hiru maila

Hizkuntza-egoera ezberdina izan daiteke kasuaren arabera eta, hori dela eta, egoera bakoitzari erantzuteko, hiru ziurtagiri maila eskaintzen dira:

- **Zerbitzua eta lana euskaraz:** Zehaztutako irizpideen arabera, zerbitzua euskaraz eskaini eta euskara lan hizkuntzatzat duten entitateentzat.
- **Zerbitzua euskaraz:** Zerbitzua euskaraz eskaintzen duten entitateentzat.
- **Euskararen bidean:** Euskararen normalizatorako neurriak hartzen eta garatzen ari diren entitateentzat.



zerbitzua eta
lana euskaraz



zerbitzua
euskaraz



euskararen
bidean

Hauek dira Bai Euskarari komunitatera gehitu diren azken entitateak.

EUSKARAREN BIDEAN

FORMAZIOA

- Bengoetxea Autoeskola. Andoain-Gipuzkoa
- Centro de Estudios Inatec S.L. Bilbo-Bizkaia
- Nazaret Zentroa. Donostia-Gipuzkoa
- Nivelglobal S.L. Bilbo-Bizkaia
- Peñascal Kooperatiba. Tolosa-Gipuzkoa
- Zubigune Fundazioa. Usurbil-Gipuzkoa

OSASUNGINTZA

- Garcia Otaño Farmazia. Gasteiz-Araba

ENPRESAK

- GIKESA. Donostia-Gipuzkoa
- Grupo Ormak. Donostia-Gipuzkoa

AHOLKULARITZAK, FINANTZAK, ASEGURUAK

- Iratizar S.L. Burlata-Nafarroa

ZERBITZUA EUSKARAZ

FORMAZIOA

- Free Surf Eskola. Donostia-Gipuzkoa
- Orue eskola. Amorebieta-Etxano-Bizkaia

ENPRESAK

- Jardinerie Lafitte. Baiona-Lapurdi

OSTALARITZA

- Maitenia. Ziburu-Lapurdi

ZERBITZU PROFESIONALAK

- Primerako. Donostia-Gipuzkoa



Ziurtagiriaren
Elkartea

Praktika egokia
eta eredugarria
euskaraz



Bai Euskarari

ziurtagiri bat baino askoz gehiago

Mapa

Non eros dezaket euskaraz?
Ezagutu ziurtagiridunen datu-basea eta mapa.

Praktika egokiak

Ezagutu euskaraz lanean jarduteko praktika egokiak.

Baliabideak

Diru-laguntzak, hiztegiak, formazioa on-line,
euskarazko ikas-materiala, dokuteka...

Enpresarean

Euskaraz lan egiten duten enpresen eta profesionalen komunitatea. Enpresarean Azoka, Foroa eta *enpresarean.eus* atariaren bidez elkarlana eta negozio aukera berriak sustatu nahi ditugu.

Lansarean

Profesional euskaldunek lana aurkitzeko, zein euskaraz lan egiten duten enpresek langileak bilatzeko lan-ataria.

Lazarraga sariak

Arabako esparru sozioekonomikoan euskara txertatzeko egindako lanaren aitortza. "Lanabes, Araban Euskara Lanean" egitasmoan kokaturiko sariak ekitaldia azaroaren 24ean izango da.



baieuskarari.eus



/baieuskarariziurtagiria



@baieuskarari

Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz



enpresarean.eus



/enpresarean



@enpresarean

LANsarean
bilalan

lansarean.eus



/lansarean



@lansarean